



GETXOKO UDALERRIAN 2020 ALDIAN ENPLEGUA SORTZEA SUSTATZEKO ENPRESENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAKO DEIALDIA. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO JARDUERETARAKO LANBIDEREN LAGUNTZEN DEIALDIKOAK DIRA (EHAA, 2020-06-30).

Helburua	Kontratatzeko laguntzak, lansaiosoko <i>o lanaldi partzialeko</i> hiru hilabete edo gehiagoko kontratuak egiteko, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean.
Diru-laguntza jasoz dezaketen kontratuak: Gutxieneko iraupena:	2020ko uztailaren 1ren abenduaren 31ren artean hasi diren kontratuak. Hiru hilabete iraungo dute gutxienez, eta edozein kontratazio modalitaterekin formalizatu ahalko da, prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratua izan ezik. Lanaldia osoa edo partziala izan beharko da (gutxienez jardunaldiaren %50)
Diruz laguntzeko zenbatekoak eta kontratuak:	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> 3.000 euro gehienez 3 hilabeteko lanaldi osoko kontratuertarako. Zenbateko hori 4.500 eurokoa izango da baldin eta kolektibo* hauetako pertsonak kontratatzen badira. <input type="checkbox"/> 6.000 euro gehienez 6 hilabete edo gehiagoko lanaldi osoko kontratuertarako. Zenbateko hori 9.000 eurokoa izango da baldin eta kolektibo* hauetako pertsonak kontratatzen badira. <input type="checkbox"/> Hiru eta sei hilabete arteko iraupena duten kontratazioen edo kontratazio partzialen kasuan (% 50eko gutxieneko jardunaldia), lan egindako denborarekin proportzionala izango da dirulaguntza. <input type="checkbox"/> Kontratua emakumeek egiten duten kasuetan, dirulaguntzaren zenbatekoa % 10 handituko da. Kontratuaren iraupena zenbatze aldera, aintzat hartuko dira horren luzapenak, betiere hasierako kontratua 3 hilekoa bada gutxienez. <p>Diru-laguntzen azken zenbatekoak ezin du izan kontratatutako pertsonen soldatuko eta gizarte-segurantzako kostuen %75 baino handiagoa (kolektibo* kasuan %100), kontratu amaierarengatik eman beharreko kalte-ordainak eta enpresak ordaindu behar duen Gizarte Segurantzaren kuota barne.</p> <p>*Kolektiboak: DSBEaren titularrak edo onuradunak, 35 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak (kontratazioaren aurreko 540 hilabeteetan Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta daudenak, baldin eta denboraldi horretan gutxienez 360 egunez langabezian egon badira) eta 55 urtetik gorako pertsonak.</p>
Nor kontratatu daiteke	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enpleguaren eskatzaille modura izena emanda egotea. <input type="checkbox"/> Getxon erroldatuta egotea. <input type="checkbox"/> Kontratutako pertsonak ezin dute enpresako titular/bazkideen odolkide/ahaide izan, ezta elkarbizitza-unitate berekoak ere.
Enpresa edo erakunde onuradunak	Enpresak, dendak eta profesionalak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak, elkarteak eta fundazioak, betiere lantokia eta jarduera ekonomikoa Getxon badute.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



Betekizunak	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Kontratuek Gizarte Segurantzako erregimen orokorrekoak izan behar dute. <input type="checkbox"/> Enpresa bakoitzeko 3 kontratu diruz lagunduko ahalko dira gehienez. Deialdi hau argitaratzean edo diruz lagundutako lehen kontratua egin aurretik 2 edo langile gutxiago duten enpresetarako (langile autonomoak barne), gehienez kontratu 2 lagundu ahalko da diruz. <input type="checkbox"/> Kanpoan geratzen dira honako pertsona hauen lan-kontratazioak: deialdi honetan eta aurreko 3 deialdietan pertsona horiek kontratatzeagatik enpresa berebean jadanik laguntza jaso dutenak.
Eskariak aurkezteko epea	2020/12/24tik 2021/02/08ra arte
Eskariak aurkezteko tokia	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Bide telematikoa: www.getxo.eus/eu. Administrazio elektronikoaren bulegoa (AEB) <input type="checkbox"/> Presentziala: Getxoko herritarrentzako arreta-bulegoak (HAB). Helbideak eta ordutegiak: www.getxo.eus/eu.
Informazioa hemen:	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> 2020ko abenduaren 23ko BAO 246. zk. <input type="checkbox"/> Getxolan. Getxo Elkartegia.Ogoño kalea, 1. Areeta. Telefono-zenbakia: 94 466 01 40. getxolan@getxo.eus http://www.getxo.eus/eu/getxolan
Helburu bereko laguntzekin bateragarriak al dira?	EZ. Diru-laguntza hauekin batera ezin da administrazio edo erakunde publiko eta pribatuek kontzeptu eta helburu bererako ematen dituzten diru-laguntza eta laguntzarik jaso, salbu Gizarte Segurantzak ematen dituen hobariak.
Diru-laguntzak nola emango diren	Eskariak aurkeztutako ordenan, betiere behar bezala beteta badaude, espedientea osorik badago, eta diruz lagundutako kontratuen %40 gutxienez emakumeekin egin dela betetzen bada eta aurrekontu-kredituaren mugara heltzeraino.
Ordaintzeko modua	Bi ordainketa: Eskumena duen organoak ematen dituen laguntzak ebatzi ondoren, %70 (eskaera aurkezteko epea amaitu eta gehienez bi hilabetera, betiere eskaria behar bezala beteta badago). Gainerako %30 egiaztatzen denean diruz lagundutako kontratazioko baldintzak betetzen direla.
Akatsak konpontzea	Eskaria aurkeztutakoan dokumentazioa falta bada, eskatu egingo da eta aurkezteko 10 eguneko epea jarriko da.

Laguntza horiek Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, Lanbide Enpleguaren Euskal Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2020. ekitaldirako 2020ko ekainaren 24ko Ebazpenari, 30-06-2020ko EHAAn, 127. zenbakian, argitaratutakoari, jarraikiz.